

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Artearen Oinarriak II USE 2020

www.ehu.eus



Proposatutako sei ariketa hauetako HIRUri erantzun behar diezu.

Ez ahaztu azterketa-orrialde guztietan kodea jartzea.

- Proba idatzi honek 6 ariketa ditu.
- Ariketak bi multzotan banatuta daude:
A Multzoa: 4 galdera ditu (bakoitzak idatziaren % 40 balio du), **2ri erantzun behar diezu.**
B Multzoa: 2 galdera ditu (bakoitzak idatziaren % 20 balio du), **1i erantzun behar diozu.**

Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.
- Gehienez 90 minutuan egin behar da.

Debes responder a TRES de los siguientes seis ejercicios propuestos.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

- Esta prueba escrita consta de 6 ejercicios.
- Los ejercicios están distribuidos en dos bloques:
Bloque A: consta de 4 cuestiones (cada una con un valor del 40% de la prueba escrita), **debes responder a 2** de ellas.
Bloque B: consta de 2 cuestiones (cada una con un valor del 20% de la prueba escrita), **debes responder 1** de ellas.

En caso de responder a más preguntas de las estipuladas, las respuestas se corregirán en orden hasta llegar al número necesario.
- Debe ser realizada en 90 minutos, como máximo.



A MULTZOA

(Lau galdera ditu; galdera bakoitzak proba idatziaren % 40 balio du,
2ri erantzun behar diezu)

A1. Egizu jarraian agertzen den irudiaren iruzkina. Analisisirako proposatzen den gidoia eredu gisa erabili behar da.

Gidoia:

1. Forma-analisia: aztertu lanak erabiltzen duen hizkuntza plastikoa (marrazkia, kolorea, argia, konposizioa, etab.).
2. Interpretatu nola erabili duen egileak baliabide plastiko horiek lanaren sorkuntza globalean.
3. Saiatu artelanaren gaia identifikatzen eta haren esanahian sakontzen.
4. Erlazionatu irudia historiografikoki dagokion arte-estilo edo mugimenduarekin, azaldu zer estilo edo arte-mugimendutako ezaugarriak ikusten diren bertan irudikatuak, eta adierazi zure ustez noiz egina den.






- A2. Egizu jarraian agertzen den gai-proposamenaren garapen teoriko bat. Zenbait artelan proposatzen dira, garapen teoriko horri bide emateko baliagarriak izan daitezkeenak. Diskurtsoan haiei erreferentzia egitea baloratuko da.**


Gai-proposamena: Esplikatu arte minimalistaren garapena.



JUDD: *Titulurik gabea* (1965eko original batetik 1990ean sortutako lana)



FLAVIN: *V. Tatlin-en omenezko monumentua, 30 zk.* (1966-1969)




MORRIS: *Bere fabrikazioaren soinua duen kutxa* (1961)



A3. Egizu jarraian agertzen den irudiaren iruzkina. Analisisirako proposatzen den gidoia eredu gisa erabili behar da.

Gidoia:

1. Forma-analisisa: aztertu lanak erabiltzen duen hizkuntza plastikoa (kolorea, bolumena, konposizioa, mugimendua, etab.).
2. Interpretatu nola erabili duen egileak baliabide plastiko horiek lanaren sorkuntza globalean.
3. Saiatu artelanaren gaia identifikatzen eta haren esanahian sakontzen.
4. Erlazionatu irudia historiografikoki dagokion arte-estilo edo mugimenduarekin, azaldu zer estilo edo arte-mugimendutako ezaugarriak ikusten diren bertan irudikatuak, eta adierazi zure ustez noiz egina den.






- A4. Egizu jarraian agertzen den gai-proposamenaren garapen teoriko bat. Zenbait artelan proposatzen dira, garapen teoriko horri bide emateko baliagarriak izan daitezkeenak. Diskurtsoan haiei erreferentzia egitea baloratuko da.**

Gai-proposamena: Esplicitu zertan zetzan inpresionismoa eta zein izan ziren haren artista garrantzitsuenak.



MORISOT: *Neskakila diban batean* (1885 inguru)



DEGAS: *Emakume biluzia, bizkarrez, bere burua orrazten* (1886-1888 inguru)



MONET: *Sainte-Lazare tren-geltokia* (1877)



B MULTZOA

(Bi galdera ditu, galdera bakoitzak proba idatziaren % 20 balio du,
1i erantzun behar diozu)

B1. Jarraian, testu zati bat proposatzen da. Irakurri, laburbildu haren ideiarik garrantzitsuenak, eta erlazionatu testua arte-estilo edo arte-mugimenduren batekin, zure ondorioa argudiatuz.

Badakit azalpenak entzutera etorri zaretela hona. Bada, ez ezazue espero batere azalpenik Dadari buruz. Azal iezadazue zergatik existitzen duzuen zeuek. Ez duzue arrastorik ere. Esango duzue: existitzen naiz nire seme-alabak zoriontsu izan daitezen. Baina zeuen bihotzaren barren-barrenean badakizue hori ez dela hala. Esango duzue: existitzen naiz nire herrialdea barbaroen inbasioetatik defendatzeko. Horra hor arrazoi on bat. Esango duzue: existitzen dut Jainkoak hala nahi izan duelako. Haurrentzako maitagarrien ipuin bat da. Ezingo didazue inoiz esan zergatik existitzen zareten, baina prest egongo zarete beti bizitzaren aurrean jarrera serio bati eusteko. Ez duzue inoiz ulertuko bizitza hitz-joko bat dela, ez baituzue inoiz behar bezain bakarrik egongo gorrotoa, epaiketak, hainbeste ahalegin eskatzen duten gauza horiek guztiak baztertzeko eta oro berdina eta garrantzirik gabea izatea lortzen duen egoera mental bare eta orekatura iristeko.

TRISTAN TZARA. *Dadari buruzko hitzaldia*, 1924an argitaratua.



B2. Jarraian, testu zati bat proposatzen da. Irakurri, laburbildu haren ideiarik garrantzitsuenak, eta erlazionatu testua arte-estilo edo arte-mugimenduren batekin, zure ondorioa argudiatuz.

Nire pentsaeraren arabera, espresioa ez da giza aurpegi batean edo keinu bortitz batean islatutako grina. Nire margolanen konposizio osoa da espresiboa. Irudi edo objektuek hartzen duten tokiak, haiek inguratzen dituzten espazio hutsek, proportzioek, orok du eginkizun bat. Konposizioa, artean, margolariak eskura dituen elementuak modu apaingarriak antolatzea da, bere sentimenduak adierazteko.

HENRI MATISSE. *Pintore baten notak*, 1908an *La Grand Révuen* argitaratuak.

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

ARTEAREN OINARRIAK II

Zenbait gogoeta

- *Artearen Oinarriak* Artearen Teoria eta Historiako irakasgai bat da, baina sortzaileei zuzendua. Nahiz eta Giza Zientziak eta Humanitateen Batxilergoko *Artearen Historia* irasgaiarekin zenbait eduki partekatu, *Artearen Oinarriak* ikasten duten ikasleen profila ezberdina da eta baita ere irakasleek eta ikasleek bere irakasgaiari ematen dioten ikuspegia.
- Aurretik aipatutako arrazoiarengatik, adibidez, artelanaren iruzkinean ez da eskatzen irudia edo bere autorea identifikatzea (egiten bada, positiboki baloratuko da noski, baina ez da ezinbestekoa), baizik eta irudiaren forma aztertzea, gaiaren inguruko gogoeta bat egitea eta mugimendu edo arte-estilo bati esleitzea argudiatuz zergatia.
- Era berean, gai-teorikoaren garapenean, irudiak pista bezala jartzen dira. Positiboki baloratuko da hauek garapenean integratzea, baina ez da ezinbestekoa haiei erreferentzia egitea.
- Testuaren ariketak duen helburua da ikasleek sortzaile baten idazki bat ulertu eta bere testuinguruan kokatzeko gai izatea.

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

Ebaluazio-irizpide orokorrak

1. Eskatzen zaionari egokitu egiten da eta gaian zentratzen da.
2. Zuzentasunez eta argitasunez espresatzen da, eta testu koherente eta egituratu bat egiteko gai da.
3. Bere baieztapenak argudiatu egiten ditu.
4. Gaiaren hiztegi espezifikoa erabiltzen du.

Ebaluazio-irizpide espezifikoak

Artelan baten iruzkina: 4 puntu

- Komentatu beharreko artelanean erabiltzen diren errekurso plastikoak identifikatu, aztertu eta koherenteki justifikatzen ditu eta artistak nola erabiltzen dituen azaltzen du.
- Artelanaren errekurso plastikoak eta bere esanahiaren arteko erlazioak agerian jartzen ditu.
- Aztertu beharreko artelana sailkatu daitekeen mugimendu edo garaiarekin identifikatu egiten du eta beraren estilo-ezaugarri bereizgarriak ezagutzen ditu.
- Artelana eta historiografikoki sailkatzen den mugimendu edo estiloaren arteko loturak azaltzen ditu: obran ikusgai dauden mugimenduaren ezaugarriak aipatzen ditu, obra bere sorkuntza garai eta espazioan kokatzen du...

Gai-proposamen baten garapena: 4 puntu

- Proposatzen zaion gaia edo arte-mugimenduaren ezaugarri garrantzitsuenak identifikatzen ditu.
- Gaiaren inguruko beste aspektu esanguratsu edo nabarmenak ezagutzen ditu: kronologia, garatu zen lekua, artista bereizgarrienak....
- Azaltzen duen mugimendua, garaia edo artistak eta beste estilo, garai edo artisten arteko erlazioak bilatzen ditu.
- Bere diskurtsoan koherenteki aipatzen ditu erreferentziatzat eman zaizkion irudiak.

Testu-iruzkina: 2 puntu

- Testuaren gaia eta ideei nagusiak identifikatzen ditu.
- Testuko informazio garrantzitsuena laburbiltzeko gai da.
- Testuaren ideiak berarekin erlazioa daukan estilo edo mugimenduarekin harremanetan jartzen ditu.
- Bere ezagutzetan oinarritutako irizpide koherenteak erabiltzen ditu testuaren edukiak eta berarekin erlazioa daukan estilo edo mugimenduaren arteko loturak argudiatzeko.